

Bizkaiko Diputatu Nagusiaren hautaketa

EAJ eta PSE-PSOEren botoak nahikoak izan ziren Pradera nagusitzeko

HBko baliogabeko botoak izan ziren, eta EE, EA eta PP abstenitu egin ziren

Jose Alberto Pradera jeltzalea atzo aukeratu zuten Bizkaiko Diputatu Nagusi berri, PSE-PSOE eta EAJren botoekin. HBko diputatuak «ez» hitza idatzi zuten paperetan eta baliogabekotzat jo zituzten, EAk, EEk eta PPK boto zuria eman zuten artean.

ZORION ZAMAKOLA / GERNIKA

Lehenengo bozketa nahikoa izan zen Praderak Bizkaiko Diputazioko buru karguari eusteko, sozialisten eta jeltzaleek elkartuta 33 boto lortu bait zituen, gehiengo nagusia erraz lortuz.

EAJren hauteskunde programaren ildotik, Praderak datozen lau urteotarako egitasmoak aurkeztu zituen, eta euskara eta erdara tartekatu zituen 50 minutu iraun zuen hitzaldian.

Bizkaiko Diputatu Nagusi berriak hamar puntu bereizi zituen datorren legegintzaldirako «mugarik gabeko Europa berriak» ezarriko duen «lehiakortasuna» azpimarratuz.

Hain zuzen ere, komunikabideen azpiegituraren garapena, zerbitzu eta industriaren azpiegitura, fiskal eta finantz politikak, ingurugiroa, zerbitzu sozialak, kultura eta bizitza maila, lehenengo saileko arloa, Bizkaiko lurralde osoaren garapen armonikoa, administrazio publikoa herritarren zerbitzuan ipintzea eta instituzioen arteko kolaborazioa aipatu zituen Praderak.

Halere, egitasmo hauetaz aparte, Diputatu Nagusiak beste bi gai aipatu zituen hitzaldian: bata Euskal Herriko Unibertsitatean izan diren arazoengatik, «irakaskuntzaren txarrerako» izan daitekeela eta «gure Unibertsitateak bere izen ona galdu» dezakeela aipatuz.

Ondorioetan, oster, Praderak ziurtatu egin zuen «ezin» zuela amaitu «gure herrian dagoen bakerik eza aipatu barik». Praderaren esanetan, egoera hau «gizarte zorionsua odol putzu handi baten gainean erai ki nahi dutela diotenen burugogorkeriak» eragiten du, eta Diputazioak «zalantza barik Ajuria Eneako itunak dakarrenari laguntza instituzional osoa» emango diola gaineratu zuen. Diputazioaren egitasmoen inguruan, besteak beste, zerga kopurua jaistea eta industriei laguntza fiskalak eskaintzea aipatu zituen Praderak. Ingurugiroan Diputazioa «erabat aktiboa» izango dela adierazi zuen, eta euskararen alorrean, oster, «orain arte bezala funtzionariak euskalduntzeko ahaleginekin» segituko duela.

KRITIKAK DIPUTAZIO BERRIARI? Batzar Nagusietan oposizioan egongo diren EE, EA eta PP alderdiek kritika gogorrak egin zituzten PSE-PSOE eta EAJren arteko itunari, batez ere lehenengo biek.



Pradera (EAJ), Barandika (HB) eta Lizundia (EE) bileraren atsedendaldia batean.

TX. FERNANDEZ / EFE

Juan Antonio Loidi EAKo diputatuak Praderak behin batean esan zuena gogorarazi zion, alegia, PSOERI botoa ematea masokismoa zela. Gauzak horrela, jeltzaleei itun horren zergatia galdetu zion.

Diputazioko Mahaiaren osaketa «ezdemokratikoa» zela iritzi zion Loidik, sozialistek eta jeltzaleek ezezik, oposizioko partaideek ere osatu beharko luketela argudiatuz.

Praderak emandako hitzaldia ere kritikatu zuen, azken lau urteotan bete ez duena datorren legegintzaldirako agintzen duela salatuta.

Lizundia EEko ordezkariak, bere aldetik «dezepzionagarria» iritzi zion Praderaren hitzaldiari, irailan esan zituenak errepikatu baino ez dituela egin argudiatuta.

Gainera, Eusko Jaurlaritzan dagoen itunari buruzko erreferentziarik ez zuela egin gogorarazi zion Praderari, eta ezta PSE-PSOE ere, eta aurreko legegintzaldiko «rodillo» gogoratuta «ezin zaituztegu bakarrik utzi», esanez amaitu zuen Lizundiak.

REDONDOREN KRITIKAK HB-RENTZAT Nicolas Redondo sozialistak HB kritikatu egin zuen bere hitzaldiaren zati handi batean, bere ustez ez dagoelako legitimatuta gainontzeko alderdi «demokratikoekin» hitzegiteko, «ETArekin duzuen menpekotasuna hausten ez duzuen bitartean».

EAJrekin egin duten itunaren arrazoia «joan zen irailaren 26an argi» geratu zela adierazi zuen diputatu

sozialistak, bi partiduok nagusi eta homogenoak izan zirelako.

«Ituna» izan zen Redondok erabili zuen beste argudioa, EAJrekin emango diren maila guztietako itunek sozialistek politikak «progresista»

eroaten lagunduko diela ziurtatuz. Barreda PPKo ordezkariak, bere aldetik, boto zuriaren justifikazioa «mesfidantzan» ezarri zuen, eta besteak beste, euskararen gaian «moderazioa» eskatu zuen.

Etxebarriak aukera abertzalea baztertzea leporatu dio EAJri

ZORION ZAMAKOLA / GERNIKA

HBko zortzi diputatuak atzo agertu ziren lehen aldiz Gernikako Juntetxean Diputatu Nagusia aukeratzeko saioan, halere, bozketa egiteko orduan HBko ordezkariak ez zuten parte hartu zuten, baina «ez» jarri zuten paperean.

Joserra Etxebarria HBko ordezkariak gogor salatu zuen Bizkaiko Diputazioa osatzeko EAJk eta PSE-PSOEek egin duten ituna. «Hemen aurkeztu digutena, ez da nazionalisten eta sozialisten arteko ituna. Erregionalismorik motelenaren eta espainolismorik gogorrenaren arteko ituna da», adierazi zuen Etxebarriak.

EAJri hautesleena nahia ez errespetatzea leporatu zion, «oso modu nabarmenean aukera nazionalista eta abertzaleen alde agertu arren», PSE-PSOEri botoa ematearren, «jakinaren gainean egonik, alderdi horrek Espainiako polizia erabiltzen duela zigortzeko eta torturatzeko, euskal preso politikoak gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten gar-

tzeletan zigortzen dituela, intsumisiorako eskubidea defendatzen duten gazteak kondenatu eta gartzelaratu egiten dituela eta gerra zikina eta euskal gudariak erahilketa adoretzen dituela».

UDALAK GARAPENAREN MOTOREA

HBko ordezkariak udalen autonomia finantzario eta politikoaren aldeko hitzaldia egin zuen, «udalak garapenaren eta aurrerapenaren motorea izanik, gizarte sektore guztien partaidetza bultzatuz».

Industri arloan, Etxebarriak salatu zuen Bizkaian ez dela «birmoldaketa industrialik gertatu, lanpostuen deuseztapen sistematikoa baizik, aukerabide berririk sortu gabe», eta INIren eskuetan dauden enpresak berreskuratzeko eskakizuna egin zuen.

Langabezia gutxitzeko bideen artean, lan ordutegia eta egutegia laburtzeko proposamena egin zuen, «lan gutxiago eginez, lana guztientzat egon dadin».

Sancho Biurrunen kontrako epaia gehitu du Pariseko Apelazio Epaitegiak

PARISE

Joaquin Sancho Biurruni Pariseko Epaitegi Korrekzionalak jarri zion bi urteko gartzela zigorra lau urtera gehitu zuen atzo Apelazio Epaitegiak. Legez kanpo armak edukitzeagatik, dokumentazio faltsua erabiltzeaz eta Estatu frantsesean ilegalki egoteaz akusatatu zuten Sancho Biurrun joan zen urteko irailaren 26an egindako epaiketan.

1989ko urtarrilean Frantziako Poliziak Baionan burutu zuen operazioaren ostean zabalduko sumarioan dago Joaquin Sancho Biurrun, beste zortzi lagunekin batera. Horien artean dago, Jose Antonio Urrutikoetxea 'Josu Ternera', hamar urteko gartzela betetzera zigortu zutena.

Sumarioan inplikaturak zeuden bederatzi euskal herritarren kontrako epaia ezagutu eta denbora gutxira errekurtsioa jarri zuen fiskalak Apelazio Epaitegian. Sancho Biurrunena bi urteko gartzelatik laura gehitu du epaitegi honek, eta zigorra bete ondoren hiru urteko epean ezingo duela Estatu frantziarrean bizi agintzen du.

Frederic Larzabalei ezarritako urtebeteko gartzela zigorra berretsi du Apelazio Epaitegiak, eta «gaizkile elkarteko kide» izatearen akusaziotik absolbatu du. Didier Dupont, Epaitegi Korrekzionalak absolbatu zuena, sei hilabeteko gartzela betetzera zigortu dute orain. «Gaizkile elkarteko kide» izatearen akusaziotan epaitu zituzten Jacqueline Idiart eta Gonzalo Etxebarriaren absoluzioa berretsi du Pariseko Epaitegiak.

Irunberriko heriotzak argitzeko eskatu du HBk lehen urtemugan

IRUNEA

Orain urtebete Irunberriko arroilan gertatutakoa argitu dadila eskatu zuten atzo Herri Batasunak Justizia espainiarreko ordezkariak.

Gogoratuko denez, iazko ekainak 26 goizean Susana Arregi eta Jon Lizarralde ETAkideak hilda aurkitu zituzten Irunberriko arroilan. German Rubenachek, berriz, bala zauriak zituen eta egoera larrian ospitalera eman behar izan zuten. Bezperran ETAko kideak eta Goardia Zibilaren artean izandako enfrentamenduaren ondorioz Dominguez Piris izeneko sargentua hil egin zen.

«Gertakari horiek eta bi heriotzen eta Rubenachen zaurien azken arduradunak nortzuk diren argitu arte, iker dezatela», eskatu zuten atzo Herri Batasunak dagokien legegizonei.

Alderdi abertzalearen ustez, Arregi eta Lizarralderen gorpuen azterketak «bertsio ofizialarekin bat ez datozten hipotesiak indartzen ditu eta nahitaezkoa da horiek berehala argitzea». Irunberri, Mikel Zabalza eta beste hainbat kasu gogoratu ditu HBk, botere judicialak «horrelakoak argitzeko duen borondate eskasa» salatuz.